playas de Bizkaia

Contenido página de playas

Consiste en un mapa esquemático de Bizkaia en el que se han colocado, con sus nombres, botones sensibles de las 28 playas. Estos botones permiten acceder a las páginas específicas de cada playa.



Una página para cada playa

Se incorpora una fotografía panorámica de la playa. En la parte inferior hay unos iconos que nos aportan información sobre temperatura del agua y temperatura ambiente, grado de soleamiento, intensidad del viento, nivel de ocupación de aparcamiento y de la playa, eventos, bandera/s indicativas de baño, bandera azul.

Esta información se actualizará al menos diariamente y siempre que haya cambios significativos.

Los botones activos que rodean la elipse central permiten acceder a otras páginas en las que se incluyen:

- Información específica sobre cada una de las playas.
- Información detallada sobre mareas.
- Información sobre banderas azules.
- Información sobre la calidad del agua.
- Información acerca de cómo llegar a Bizkaia.
- Información sobre medios de transporte a las playas.
- Información sobre el tiempo.
- Información detallada de asistencia a las playas.
- Documentación amplia sobre flora y fauna.



Seguimos avanzando

En la revista anterior vimos el avance en la recogida de residuos en contenedor y el reciclaje logrado en 1999 con el esfuerzo de todos. Ahora vamos a ver lo conseguido en el primer medio año del 2000.

Aurrerantz gelditu barik

Aldizkariaren aurreko zenbakian, danon ahaleginagaz 1999an edukiontzietan batutako hondakinen arloan emondako aurrerapausoa eta lortutako berziklapena ikusi genduan.
Oraingo honetan, barriz, 2000ko lehenengo hiruhilekoan lortutakoa ikusiko dogu.

Observatorio permanente de residuos sólidos urbanos.

Hiri hondakin solidoen jarraipenerako sistema.

	RESIDUOS SOLIDOS URBANOS (RSU)	
	1999	Enero-marzo 2000
	Tn. Totales	Tn. Totales
Recogida domiciliaria en masa + mezcla en masa de RICIA*	461.404	123.519
Vidrio	16.224	4.205
Papel-Cartón	73.553	19.759
Pilas	123	35
Voluminosos	9.769	2.600
Envases-Plásticos	6.731	4.747
Maderas	22.349	9.342
Metales	59.613	17.093
Podas y Jardinerías	3.591	2.000
Textiles	198	65
Línea blanca, marrón, gris	793	184
Vehículos fuera de uso (VFU)	36.251	5.337
Neumáticos fuera de uso (NFU)	805	2.100
TOTAL	**984.172**	**249.156**

*Residuos Industriales, Comerciales e Institucionales asimilables.

Enero-junio 2000

Gaikako bilketaren eta beira-berziklapenaren ganeko datu baikorrak:

Datos positivos de recogida selectiva y reciclaje de vidrio:

—— **12'5% de incremento.**

—— **7.957 toneladas recicladas.**

—— **7 Kg. por habitante.**

Gaikako bilketaren ganeko datuak:

Datos de recogida selectiva en Garbigunes:

Te recordamos cuáles son los residuos que se pueden depositar en los Garbigunes

Garbiguneetan bota daikezan hondakinak zeintzuk diran gogorarazoten deutsugu:

GELDOAK: *Obra-hondakinak, lurrak, errautsak, kristalak...*
METALIKOAK: *Erradiadoreak, bizikletak, bonbonak eta hutsik dagozan itzalgailuak...*
EGURRA: *Armairuak, aulkiak, kutxak, taulak...*
PAPERA ETA KARTOIA: *Enbalajeak, egunkariak, aldizkariak, karpetak...*
PLASTIKUAK: *Ontziak, botilak eta bildukiak.*
BEIRA: *Botilak, poteak eta beste ontzi batzuk.*
PILAK: *Era guztietakoak.*
METAGAILUAK *eta bateriak.*
LORAZAINTZA: *Inausi mozkinak.*
OLIOAK: *Karter eta etxeko olioak.*
MARRA ZURIA: *Etxetresna elektrikoak.*
MARRA MARROIA: *Telebistak, musika ekipoak, konputagailuak.*
EHUNAK: *Era guztietakoak.*
MEDIKAMENDUAK
FLUOR-LANPARAK
NEUMATIKOAK
BESTE BATZUK: *Koltxoiak, somierrak...*

Garbigunea

7.315 Toneladas recogidas
90% de crecimiento sobre el año 1999.

Ya se han recogido en los Garbigunes 22.289 toneladas de residuos.

Diariamente se depositan 50.200 kilos de residuos en los Garbigunes.

Los escombros representan más de la mitad de los residuos que se depositan.
Las maderas el **20%.**

En este medio año han pasado por los Garbigunes 40.000 usuarios.

Uda sasoi bikaina da hainbat ekintza egiteko. Orrialde honetan aurkezten deutsuguna dozu horreetako bat. Hondartzara zoazen egunen baten, joan zaitez Plentziara, sartu eizu pasaportea motxilan eta presta zaitez egun bikaina pasatzeko.
Ez eizu ahaztu zeure pasaportea erakustea, zigilatu egin behar deutsue-ta.

Actividades del Garbibide

El verano es una época estupenda para completar una buena cantidad de actividades.
Una de las más apropiadas es precisamente la que te presentamos en esta página. Cualquier día que vayas a la playa, acércate hasta Plentzia, mete en la mochila el pasaporte y disponte a pasar una jornada la mar de entretenida.
No olvides mostrar tu pasaporte para que te lo sellen.

En tu Garbibide encontrarás más actividades a realizar durante el mes de agosto. Si aún no lo has hecho, visita un Garbigune y aprovecha para llevar los residuos especiales que no caben en los contenedores de la calle.
Las tareas 1C y 4A son otra buena sugerencia, así como la 3A si viajas en autobús a la playa o haces turismo por los pueblos y costas de Bizkaia.

Busti zaitez 2000

Bizkaiko esklerosi anitzak jotako gaixoek kanpaina bat antolatu dabe ondoko bi helburuak lortzeko asmoagaz: jendea sentsibilizatzea gaixotasun honek eragiten dituan arazoen ganean eta Euskal Herriko osoko errehabilitazinorako lehenengo zentrorako dirua batzea. Zentroa 2000ko urrian inauguratuko dabe Bilbon.
Joan dan uztailaren 9an, hondartza eta igerilekuetan aurkeztu eben kanpaina, eta han egon zan Garbi, gaixoen ondoan.



Garbigune barria (Gautegizen)

Orain dala egun batzuk Garbigune barria zabaldu zan Gautegiz-Arteagan, hain zuzen be, Zentoki auzunean. Hondakinak gaika batzeko zentro honek Elantxobe, Ibarrangelu, Gautegiz-Arteaga, Ea, Ereño, Kortezubi eta Nabarnizko 3.585 biztanleri emongo deutse zerbitzua. Garbigunea egiteko, hondakindegi kontrolatu bakoa izandakoa garbitu behar izan zan aurretiaz.



2000ko hondartzainak

1999ko aurrekontua %53 handitu da eta, ondorioz, aurton 55 hondartzain izango dira gure hondartzetan. 10:00etatik 19:00etara hondartzain gehiago izango dira; izan be, ordu horreetan izaten da jende gehien hondartzetan. Hondartzainek hainbat eginkizun ditue, besteak beste, hondatzak, sarbideak eta aparkalekuak zaintzea eta laguntza emotea. Instalazinoak behar bezala erabilten dirala bermatuko dabe, baita ingurugiroaren ganeko informazinoa batu be.
Ekinkizun horreek albait ondoen egiteko, hondartzainek hiru liburu eukiko ditue, “gorabeherena”, “erreklamazinoena” eta “informazinoarena”.

Plentziako Ingurugiroaren Gelaren inaugurazinoa

Uztailaren 10ean inauguratu eben Plentziako Ingurugiroaren Gelako udako ekintzen ziklo barria. Bizkaia Maitea aldizkariaren aurreko zenbakian jakinarazo genduanez, Ingurugiroaren Heziketako Europako Fundazinoak ikurrina urdina emon deutso Ontziren Gelari, egiten dauan lana eta eskeintzen dauan prestakuntza-programazinoa aintzatetsiz.
Orain dala bi urte 1.500 bisitari izan zituan Gelak; 2000. urtean, ostera, 19.000tik gora izan ditu. Horrek argi eta garbi erakusten dau gelak eskeintzen dituan zerbitzuek eskaera handia daukiela eta, hortaz, heziketagaz lotutako arloak jorratzen eta bultzatzen jarraituko dau. Etorri zaitez udan zeure Garbibideagaz gelara; holan, 2. jarduerako A aukera bete ahal izango dozu. Eskatu eizu zigilatzea.

Irakaskuntzako gida barria

Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailak Urkiolako Parke Naturaleko gida argitaratu barri dau, 10-12 urteko gaztetxuentzat.

Gidan proposatutako ibilbidearen zehar, 10 leku zehaztu dira ingurua ikusi, datuak bildu eta jarduerak egiteko. Saibi basoan zehar, Urkiolako santutegiaren inguruan eta urki eta pago artean, talde lana suspertzeko aukera eukiko dogu, baita sormena, lankidetza eta lagunarteko berbaldia bultzateko be.

Gida euskeraz eta gazteleraz dago, eta ikastetxeetan banatzen dabe.

Lehenago be argitaratu dira beste gida batzuk, Urdaibaikoa, Urkiolakoa, Ezkerraldekoa eta Bilboko hirigunekoa.

Kontrolbako hondakindegi gehiago ez

Aldundiak aurtengo ezarri dituan helburuen artean kontrolbako 168 hondakindegi ixtea dago, eta hori lortzeko 20 milioi pezetako inbertsioa egitea aurreikusi dabe.

Kanpaina hori Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailak azken bost urteotan daukan politikagaz bat dator. Lurralde historikoan 1.067 hondakindegi berreskuratu dira 88 udalerritan. Garbiguneak, edo gune garbiak, oso garrantzitsuak izan dira hori lortzeko, askotan legearen kontra isurtzen ziran hondakinak orain Garbiguneetara eroaten ditugu eta.

Ingurugiro eta Lurralde Ekintzako diputatuak esandakoaren arabera, kontrolbako hondakindegi horreek 44.000 metro karratu beteten ditue, eta bertan 8.634 tona hondakin geldo eta tamaina handiko 2.455 tona hondakin dago pilatuta. M Esther Solabarrietak adierazi dauanez, zoritxarrez, berreskuratu diran hondakindegien artetik, %8n barriro be bota ditue hondakinak. Etorkizunean jarrera horrek guztiz aldentzeko itxaropena daukie.





Area de esparcimiento en Galdames

Las 5 Has. que ocupaba el área de esparcimiento de Atxuriaga recibieron durante el verano pasado a más de medio millón de personas que generaron 202 toneladas de residuos.
Para este año se van a invertir 27 millones y medio para labores de mantenimiento, reparación y nueva obra.
El área crece 8 hectáreas más y cuenta con nuevos paseos peatonales, acceso y aparcamiento para vehículos e itinerarios con diferentes panoramas vegetales.
Se presentan diferentes recorridos donde hay una campa verde con árboles y sombra, un arroyo, pequeñas caídas de agua, alisos, sauces y hasta una zona semipantanosa. Un lugar, en definitiva, ideal para conocer, disfrutar y cuidar.
Para llegar hasta Atxuriaga se toma la carretera que une Muskiz con Sopuerta.

Erradicación de vertederos incontrolados

La Diputación ha establecido como objetivo la eliminación durante el presente año de 168 vertidos incontrolados, lo que supondrá una inversión de 20 millones de pesetas. Esta campaña se engloba en la política que desarrolla el Departamento Foral de Medio Ambiente desde hace cinco años.

Se han recuperado en este Territorio Histórico 1.067 vertederos de 88 municipios, jugando un papel importante la instalación de los puntos limpios de recogida, garbigunes, receptores en muchos casos de los vertidos ilegales.

Según ha informado la Diputada foral de Medio Ambiente, los puntos de vertido incontrolado ocupan una superficie superior a los 44.000 metros cuadrados, en los que se amontonan 8.634 toneladas de residuos inertes y 2.455 de voluminosos. "Desgraciadamente", declaró Mª Esther Solabarrieta, "alrededor del 8% de los puntos que se rehabilitan han sido objeto de nuevos vertidos". Cabe esperar que en el futuro se erradique este negativo comportamiento.



La "Declaración" en la cima

El pasado 27 de mayo, la Declaración de Bizkaia subió al Everest de la mano de Juan Carlos González perteneciente a la expedición Euskaltel-Everest.
Este veterano alpinista coronó la ascensión por la cara Norte en solitario y en condiciones extremas. Tal proeza le tiene postrado en una clínica recuperándose de sus graves lesiones por congelación.
Por lo que se refiere al hecho de llevar hasta allí una copia del citado documento, debe interpretarse, como una muestra del interés de la Diputación Foral de Bizkaia por difundir hasta los últimos confines de la Tierra la reivindicación de un derecho fundamental para el futuro de nuestro Planeta y de todos los que vivimos en él.

Nueva guía educativa

Medio Ambiente de la Diputación acaba de editar la guía del Parque Natural de Urkiola destinada a niños de entre 10 y 12 años.
Durante el recorrido que propone la guía, se realizan diez paradas para la observación, recogida de datos y actividades. A través del monte Saibi, el Santuario de Urkiola y bosques de abedules y hayas, la guía fomenta la labor de equipo y valores como la creatividad, la solidaridad y el diálogo entre compañeros.
La guía en ambos idiomas, se distribuye a través de los centros escolares.
Antes de ésta, ya se han editado las de Urdaibai, Urkiola, la Margen Izquierda y el entorno urbano de Bilbao.

Mójate 2000 Busti zaitez

Los afectados por esclerosis múltiple en Bizkaia han organizado una campaña para sensibilizar a la población sobre los problemas que causa esta enfermedad y para recaudar fondos destinados al primer centro de rehabilitación integral en el País Vasco, que será inaugurado el próximo mes de octubre en Bilbao.

El pasado 9 de julio se presentó la campaña en playas y piscinas y allí estuvo Garbi en solidaridad con los afectados.

Los hondartzainas del 2000

Gracias a un incremento de la inversión del 53% respecto a 1999, este año nuestras playas contarán con un total de 55 hondartzainas.

Su presencia será mayor entre las 10 y las 19 horas, que se corresponden con los horarios de mayor afluencia a las playas. Entre sus funciones están la vigilancia y ayuda en playas, accesos y aparcamientos. Se encargarán de garantizar el uso adecuado de las instalaciones, así como recabar información de interés medioambiental.

Para el adecuado desempeño de sus funciones, los hondartzainas contarán con un “libro de incidencias”, otro de “reclamaciones” y un tercero de “información”.

Así de claro

www.gurelurra.net

Como ya sabes por el número de primavera, “gurelurra.net” es la página de internet creada específicamente para la Declaración de Bizkaia. En ella se da a conocer su contenido e incidencias más significativas. Aquí podrás obtener e imprimir tu propio título una vez adherido.

Ya se han acreditado, además de una gran cantidad de ciudadanos, todo tipo de instituciones, entidades, empresas y personalidades públicas. Sin embargo, y a pesar de que la Declaración fue aprobada en su día por unanimidad del Parlamento Vasco, por el momento tan sólo se ha adherido un partido político.

Dado que la Declaración persigue aunar voluntades hacia un fin positivo común, es previsible que en breve se adhieran el resto de los partidos.

Nuevo Garbigune en Gautegiz

Hace unos días se inauguró un nuevo Garbigune en la zona de Gautegiz de Arteaga, concretamente en el barrio de Zentoki.

Este centro de recogida selectiva de residuos dará servicio a los 3.585 habitantes de los municipios de Elantxobe, Ibarrangelua, Gautegiz-Arteaga, Ea, Ereño, Kortezubi y Nabarniz.

Para proceder a su construcción hubo que realizar una limpieza previa de un antiguo vertedero incontrolado, hoy convertido en un punto limpio.

En su inauguración, el Diputado General, Josu Bergara, destacó la idoneidad y aceptación de los garbigunes tanto entre ciudadanos como pequeños comercios e industrias. Señaló que “los garbigunes constituyen un conjunto de infraestructuras de primer orden para el objetivo de reducción y valorización de basuras previsto en la actual legislatura”.



URDAIBAI

Ingurugiroari buruzko Euskadiko lehenengo parke didaktikoa

Urdaibairen erdi-erdian, ezkutuan, Santimamiñeko koben alboan, ingurugiroaren interpretazinorako zentro bat egiten dabilz. Zoologiko antzeko bat da, baina pasealekua be bada aldi berean.
Parkearen helburu nagusia irakastea izango da eta bisitariak eskolako umeak izango dira, batez be. Hilabete honetan bertan zabalduko da eta erakusketak egiteko gelak eta ikus-entzunezkoetarako gelak eukiko ditu, inguru babestu horretako ekosistemaren barri emoteko.

URDAIBAI

Primer parque didáctico ambiental de Euskadi

Escondido, en pleno corazón de Urdaibai, junto a las cuevas de Santimamiñe, se está construyendo lo que será un centro de interpretación ambiental, a caballo entre el zoológico y el lugar de paseo. Su principal función será la enseñanza y su público destinatario el mundo escolar. Las instalaciones se inaugurarán este mismo mes y acogerá salas de exposión y audiovisuales para conocer el ecosistema de este área protegida.

LEMOIZ

Jatako hondakindegia

Aldundiak itxi egin dau Jatako hondakindegiaren zati bat harri-lubeta baten bidez, bertan bildutako hondakinen egonkortasuna hobetzeko. Lan hori egiteko 40 milioi pezeta gastatu dira, baina orain beste 7 urtetako hondakinak biltzeko ahalmena dauka hondakindegiak.
Gaur egun 51 udalerritako hondakinak eroaten dira Jatara, hau da, 70.000 tona hondakin isurtzen dira urtean, eta badagoz 400.000 tona inguru han pilatuta.
Iñaki San Juan Garbikerreko zuzendari nagusiaren ustez, hondakindegi hau eredugarri dogu, eta tamaina horretakoen artean hondakindegi hori da Estatuko onena. 1992an hondakindegia zabaldu zanetik, Aldundiak mila milioi pezeta inbertitu ditu. Adituen esanetan, Jatako hondakindegiak zehatz-mehatz beteten dau ingurugiroari buruzko europar araudia. Orain, Ingeniarien Eskolako adituak ikerketak egiten dabilz hondakinek sortutako gasa energia lortzeko erabilteko modurik dagoan aztertzeko.

LEMOIZ

El vertedero de Jata

La Diputación ha sellado recientemente una parte del vertedero de Jata, con un muro de contención que asegura la estabilidad de la masa de residuos depositada. Las obras, cuyo coste asciende a 40 millones de pesetas, permiten ampliar la capacidad de las instalaciones para 7 años más.
Actualmente, 51 municipios depositan sus basuras domésticas en Jata, lo que representa 70.000 toneladas al año que se suman a las 400.000 ya acumuladas.
Iñaki San Juan, director gerente de Garbiker, la empresa que gestiona el vertedero, lo considera modélico y “dentro de su tamaño, es el mejor preparado del Estado”, asegura. No en vano, la Diputación ha invertido en él mil millones de ptas. desde su inauguración en 1992. Según los expertos, Jata cumple a rajatabla la exigente normativa ambiental europea. Una cuestión que se está analizando por expertos de la Escuela de Ingenieros es si el gas generado por los desperdicios merece su aprovechamiento energético.

GETXO

Txakurren gorotzak

Getxoko Udalerrian txakurren gorotzen arazoa larria da; baina oso sentsibilizatuta dagoz eta ahalegin handia egiten dabilz arazoari aurre egiteko.
Udalak egin dau kanpaina bat "Zure txakurrak zeuk irakasten deutsazuna ikasten du" lemapean. Ekintza horretan bi milioi pezeta gastatu zituan, baina emoitza ona izan da. Iñaki Zarraoak, Getxoko alkateak, dinoenez, kanpainen bidez kontzientziatu egiten dira herritarrak, eta emaitza onak lortu dituen arren, ekin egingo dabe. Alkatearen esanetan, Udalerria hain dago ondo, arazo larriena txakurrak dirala. Kanpaina horrezaz ganera, txakurrarentzako kit bana emon jake txakurren jabeei.
Udalerrian 2.500 txakur dagoz erroldatuta, baina guztira 8.000 dagazala uste dabe.
Txakurren arazoa konpondu guran, Getxon txakurrek debekatuta daukie sarrera hamabost parketan eta ezin izango dira hondartzara sartu. Hondartza daukien beste udalerri batzuetan be, Plentzian esaterako, programa bera egin dabe, baina emaitzak ez dira oso onak izan, Kontxi Moure zinegotziak azaldu dauanaren arabera.



ZALLA

Enkarterrietako bidegorria

Laster 2 kilometroko bidegorria eukiko dabe Zallan bizikletazaleen eta paseoan ibilten diranen pozerako. Lanzagorta etorbidetik Bolunburuko tunelera arte joango da, La Roblako trenbide zaharretik. Bidegorriak hiru metroko zabalera eukiko dau, eta oinezkoak be ibili ahal izango dira bertatik. Leandro Kapetillo alkateak azaldu deuskunez, 55 farola ipiniko dira, baita eserlekuak be.

SODUPE

Neurtegi barria

Guillermo Ibarra Güeñeseko alkateak eta M Esther Solabarrietak oraintsu inauguratu dabe Herrerias ibaiko estazinoa, ibaiaren emaria, maila eta uraren abiadura neurtu ahal izateko puntu horretan. Lan horretarako 60 milioi pezetako inbertsioa egin da, eta neurketa-tresnak eskuratzeko 15 milioi gastatu dira.

Neurtegien bidez, ibaiko uraren kalitatea neurtu ez eze, uholdeak prebenitzen dira.

BERANGO

Gobelako urak garbiago

Berangok eta Sopelako zati batek ez dabe hondakin-urik isuriko Gobela ibaira.
Orain dala gitxi kolektore barria zabaldu dabe eta horren bidez eten egin da Berangoko herritarrek, hau da, 3.200 biztanle inguruk, ibaira egindako isurketa. Bestetik, Sopelako saneamendua be sartu da kolektorean eta, beraz, 10.000 biztanlek sortutako hondakin-urak ez dira barriro isuriko ibaira. Gobelako kolektorea egiteko 338 milioi pezetako inbertsioa egin da, eta lanak Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatu ditue.

Harrera ona horiari

Joan dan ekitaldian gora egin dau Lea Artibain bildutako paper eta beira kopuruak. Harrera ona egin deutsie edukiontzi horiari, hau da, latak, plastikoa eta tetrabirckak biltzeko edukiontziari. Ez da urtebete edukiontzi hori ipini zala eta dagoeneko bildu ditue 107 tona ontzi. Guztira, 1999an, 583 tona hondakin ez-organiko, hau da hondakin berziklagarri, bildu dira eskualdean.